



2022

Jarduera memoria

01 Ingurunearekiko konpromisoa

Agurra	3
Fundazioaren helburuak	4
Jardun-esparruak eta -eredua	5

02 Proiektuak eta jarduerak

Gizarterantz	6
Mundukide	8
Baserritik mahaira	9
Kohesio soziala	11
Garapen akademikoa	13
Garapen kulturala	14
Biodibertsitatea	16

03 Kudeaketako beste alor batzuk

Ekitaldien kudeaketa	17
Oronaren elikadura-eredua	17





Agurra

Konpromisoa, konfiantza, malgutasuna eta bizkortasuna dira gure funtsezko balioak.

Printzipio kooperatiboak dira, gure helburuarekin eta balioekin batera, gure ingurunearekiko dugun erlazioaren oinarria.

Orona gara, balio-kate guztian presentzia duen pertsonen mugikortasuneko bazkidea, zerbitzua eta jasangarritasuna nabarmentzen dituen bezeroen beharrak asetzeko. Gure gizarte- eta enpresa-proiektua osatzen duten pertsonak dira gure ardatz nagusia, eta gardentasuna eta partaidetza bermatzen dizkiegu. Gizarteko kide den aldetik, gizartera solidaritatea eta lankidetzak ekartzeko konpromisoa du Oronak.

Nazio Batuen 2030 Agendak eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuek tokia dute gure gizarte- eta enpresa-proiektuan, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztien oparotasuna bermatzeko lanean zentratzen baita. Oronan badakigu gure proiektuaren ekarpena garrantzitsua dela gizartean helburu horiek guztion artean lortzeko.

Orona Fundazioak funtsezko egitekoa du gizarteari zerbitzua eskaintzeari dagokionez, eta gure erakundeko pertsonen ere eskaintzen diegu zerbitzu hori. Fundazioaren ekintzak erakundeetara, arlo sozioekonomikora eta hezkuntzara iristen dira. Gainera,

Orona Ideoren bereizgarria da bere ingurunera irekita dagoela, eta, testuinguru horretan, trebakuntza-eta garapen-proiektuak eta kultura- eta gizarte-ekimenak ere babesten ditu.

Gure ingurune gertukoarekin egiten dugun lankidetzaren adibide garbia da Orona Ideo, Orona Fundazioaren babesarekin.

Gure inguruneari laguntzeko asmo sendoarekin jarraitu dugu 2022an, eta, horretarako, zenbait proiektu egin ditugu erakundeekin eta arlo sozioekonomikoan eta hezkuntzakoan.

Memoria honetan, alderdi horiek guztiak azaltzen ditugu, gure ekintzek jasangarritasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartean.

Etorkizunarekiko eta ingurunearekiko konpromisoa oinarritzkoak dira Oronarentzat eta, horrenbestez, egungo testuingurua konplexua izan arren, sendotasunez aurrera egiten jarraitzen dugu.

Aitor Azkarate Bazterrica

Oronako Zuzendari Nagusia




Fundazioaren helburuak

Fundazioaren estatutuen arabera, Orona Fundazioaren helburua da gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzeko jarduera eta ekimenak egitea, irabazi-asmorik gabe.

Ilido horretan, fundazioaren helburuek barnean hartzen dute hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak antolatzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak babestea eta antolatzea.

Horrez gain, fundazioaren helburua da ekonomia soziala eta kooperatibismoaren ezaugarrien hedapena sustatzea eta babestea, lan-munduan sartzea sustatzea eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-jarduerak babestea.



Fundazioaren bitartez, Oronak **gizartearekin duen konpromisoa** indartu nahi du, oinarriak sustatuz bere hezkuntzako, eskualdeko, erakundekeo, nazioarteko eta ikerketako garapenerako.

Jardun-esparruak eta -eredua

Bere ingurua hainbat ikuspegitatik garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomia, kultura, hezkuntza, gizartea eta kirola. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin batera proiektuak lantzean oinarritua, eta bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta, beharrezkoa bada, funts-bilketa jartzen ditu.


Orona Fundazioaren nahia barne-zerbitzua ematea ere badenez, badu beste helburu nagusi bat: Oronako giza kapitalaren garapen integrala. Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari fundazioak, eta, hala, funtzionamenduari koherentzia ematen zaio.

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta baliabide finantzarioak.

Beste urte batez ere, fundazioak Oronaren berrikuntza sozialaren alde egin du, eta, hala, Gizarte Kontseiluaren irizpideei jarraituz, Heziketarako eta Kooperatiba Sustatzeko Ekarpenaren bidez urtero egiten diren diru-ekarpenak osatu ditu.



Inguruko gizarteari garatzen laguntzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona Oronarentzat berarentzat ona delakoan.



Proiektuak eta jarduerak – Gizarterantz

Komunitatearen garapenari lotuta, fundazioaren helburua da bere ekintza bere jardun-eremutik hurbilen dagoen ingurunean zabaltzea, gizarte-eragileen bidez.

GIZARTERANTZ

Ingurua garatzeko Gizarterantz lan-ildoak dago zuzenkien errotuta tokiko gizartean, haren garapena hainbat ikuspegitatik sustatzea baitu helburu:

- Prestakuntza, heziketa eta ikerketa.
- Jarduera kultural, sozial eta ongintzakoak.
- Euskararen sustapena.

Halaber, Fundazioaren helburua da unibertsitate-munduarekin harremanak ezartzea, bereizgarri paregabe hauek dituen proiektu bat garatuz:

- Fakultate-eredu tradizionalarekin haustea, eta jakintza-arlo bat baino gehiago hartzen dituen gune bat eratzea.
- Lan-arloarekin lotzea, eta bermatzea ikasketak baliogarriak izango direla lan-ingurunean.
- Estatuko nahiz nazioarteko hainbat unibertsitate eta hezkuntza-erakunderen esperientziak eta ereduak barneratzea.
- Etengabeko prestakuntza-eredua ezartzea, lan-ibilbide osoan trebakuntza bermatzeko.

LANKIDETZAK

Gertuko ingurunean jarduteko dinamikaren barruan, Fundazioak lankidetzaharremanak ezartzen ditu erakunde publikoekin eta nazioarteko, estatuko eta tokiko erakunde eta fundazioekin.



Sei ardatz nagusi hauetan biltzen dira 2022an babestutako proiektu eta erakundeak:

GJH hauekin konprometituak:



MUNDUKIDE

Garapen-proiektuak babesten ditugu kooperazio-esperientziaren beraren balio solidarioen bidez.



GARAPEN AKADEMIKOA

Irakaskuntza-erakundeetan hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi dugu, ikasleek gaitasun berriak eskuratu eta garatu ditzaten.

The Egg, Doplay



BASERRITIK MAHAIRA

Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modua eraldatzea eta tokiko ekonomiaren garapena sustatzea xede duten duten ekimenak biltzen ditu.

Diametro 200, Karabeleko, Errigora, San Martin Merkatu-e



GARAPEN KULTURALA

Orona Fundazioak parte-hartze aktiboa du erakunde kulturalen artean, eta kultura-jarduera hori gure gizartean bizirik mantentzea da helburua, etorkizunari egindako ekarpen eta begirada gisa.

Erremontea, Albaola, euskara, Landarbaso abesbatza



GIZARTE-KOHESIOA

Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzearen alde lan egiten dugu, eta tokiko kolektiboaren partaidetza-sentimendua indartzen eta eragileen arteko lotura sustatzen saiatzen gara.

ASPACE, Hernani Rugby taldea, Donosti Cup, Dame TVisión



BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea bera funtsezko ondasun naturala da. Horregatik bultzatzen dugu haren kontserbazioa eta garapen ekonomikorako eta gizartearen aurrerapenerako duen garrantzia.

Aranzadi



Mundukideren sortzaileetako bat da Orona, S. Koop. Mundukide GKE bat da, 1999an sortua, eta Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan jarduteko helburua du.

Mundukidek eredu kooperatiboaren esperientziak, baliabideak eta lanerako jakintza partekatzen ditu alderdien garapena (autogestiozkoa zein osokoa) sustatzeko, eta, horretarako, kooperatiba-esperientiaren balio solidarioak aktibatzen ditu. Mundukideren lan garrantzitsua babestu du Oronak hura sortu zenetik, eta ekarpen ekonomiko esanguratsuak egiten ditu erregularitasunez Orona Fundazioaren bidez.





BASERRITIK MAHAIRA



DIÁMETRO 200

Oronako langileei eta Orona Ideoko erabiltzaileei (Orona, Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan) garaian garaiko elikadura, kalitate onenekoa eta bertan ekoitzia eskaintzea da elikagai-eredu paregabe eta propio honen oinarria. Elikagaiak metodo tradizionalak erabiliz prozesatzen dira, ingurumena errespetatzea lehenetsiz, eta nekazari, abeltzain eta arrantzaleek bidezko prezioa jasotzen dute beren uztaren edo harrapaketa truke.

Gure Elikagai SLren bidez, Oronak 0 kilometroko produktueta oinarritutako elikadura-eredu osasungarri bat eskaintzen die Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei eta Diametro 200 jatetxera etortzen diren bezeroei. Estatuko ziurtagiri ekologikoarekin erregistratutako enpresako lehen jantoki-zerbitzua izan da estatuan (INTERECO).

Aipatutakoaz gainera, Oronako langileen artean kultura osasungarria sustatzeko eta elikagaiak alferrik ez galtzeko helburuarekin, eguneroko menuko janaria etxera eramateko aukera dago.



KARABELEKO

Karabeleko lursail agroekologikoarekin lankidetzan jarraitzen dugu, zeina Diametro 200 jatetxearen barazki freskoen hornitzaile nagusia baita. Berezitasun bat du: gaixotasun mentalak dituzten pertsonak lan egiten dute han.

Karabelekok, xede terapeutikoa betetzeaz gainera, hurbileko merkatua bultzatzen du, eta biodibertsitatearen aldeko lana egiten du, barazki-, fruta- eta lekale-barietateak berreskuratzen baititu. Orona Fundazioak laguntza finantzarioa ematen dio proiektuari.

Bestalde, Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileen artean kontsumo-talde bat dago, eta astero Karabeleko lursail agroekologikoko barazki ekologikoen oterra jasotzen dute.



BASERRITIK MAHAIRA



ERRIGORA ELKARTEA

Errigora elkarteak bultzatutako "Lurra, sua, ura, herria" kanpaina babestu du Orona Fundazioak, ekainean Nafarroan izan ziren suteek eragindako krisi-egoerari aurre egiteko helburuarekin; 15.000 hektarea baino gehiago erre ziren sute horietan.

Errigorako diziplina anitzeko talde batek kudeatuko ditu kanpainaren barruan jasotzen diren laguntza guztiak, markatutako lan-ildoak behar bezala garatzen direla bermatzeko. Zehazki, suebaki berdeen garapena eta abeltzaintza estentsiboa suteen aurkako tresna gisa erabiltzea bultzatuko dira.




SAN MARTIN MERKATU-E

Orona Fundazioak San Martin Merkatuari lagundu nahi izan dio Merkatu-e proiektuarekin, kalitate oneneko eta gure inguruan ekoiztako produktuak modu jasangarrian gerturatuz Donostialdeko etxeetara.

Merkatu-e proiektuaren bidez, betiko hornidura-azokaz gain, bere bertsio digitala ere eskaintzen da orain. Plataforma berri horri esker, erosketak online egin daitezke, eta gero etxean jaso. Erosketak Txita ibilgailuetan eramaten dituzte etxera; Txita Donostiako enpresa bat da, trizikloak eta ibilgailu % 100 elektrikoak erabiliz garraio ekologikoko zerbitzuak eskaintzen aitzindaria.



GIZARTE-KOHESIOA



ASPACE

Garun-paralisiaren elkarteak (ASPACE Gipuzkoa) gipuzkoar gizarteari eskerrak eman nahi dizkio azken 50 urteotan egiten ari den jarduerari eman dion laguntzagatik. Hori dela eta, erakundeak erakusketa bat jarri du abian, eta Orona Fundazioak horretan lagundu du.

24 panelek osatzen dute erakusketa eta, modu didaktiko eta pedagogikoan, garuneko paralisia duten pertsonen, haien ingurune pertsonal eta familiarren eta elkartearen errealitatea bistaratzea eta balioestea dute xede.

Erakusketa Orona Ideon inauguratu zen, eta Gipuzkoan barrena ibili da 2022an, udalerriz udalerriz.



HERNANI RUGBY TALDEA

Orona Fundazioa Hernani Rugby Elkarteko emakumezkoen errugbi taldearen eta talde inklusiboaren babeslea da.

Hernani Rugby Taldea tokiko eragile dinamizatzaile bat da, eta ehunka pertsona bideratzen ditu kirol horren berezko talde- eta elkartasun-balioetara. Orona Fundazioak klubeko emakumezkoen errugbi-taldeari eta talde inklusiboari laguntzen die, klubera etortzen diren pertsona guztientzat espazio eroso bat sortzen lagunduz eta denek desberdintasunak onartuz, genero-, adin- nahiz funtzionalitate-arlokoak.



GIZARTE-KOHESIOA



DONOSTI CUP

Donosti Cup-ekin lankidetzan aritu gara, Boliviako oihaneko emakumezko jokalariek osatutako taldearen parte-hartzea bultzatuz.

Txapelketako emakumezkoen kategorian jokatzeari gainera, gizarteratzearen aldeko ekimenean ere parte hartu du taldeak, Donosti Authentics Cup koparen barruan: dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako Mindara elkartearen jokalariekin batera jokatu dute partida bat guztiek batera, Oronaren kamisetak soinean ditzuzela.



DAME TVISIÓN

“Errebeldeak fest” jaialdiak desgaitasunak dituzten pertsonen irudia normalizatzeko helburua du, eta hori da jaialdiaren balio erantsia. Bertan, kirol-jarduera egokituak eta inklusiboak antolatu dira, eta, amaitzeko, rock-kontzertu bat.

Erretinosi pigmentarioa duen Ibon Casas musikariak egindako lanaren emaitza da ekitaldia. Duela hamarkada bat baino gehiagotik, Dame TVision kultura-elkarteari bidez, desgaitasuna munduan milioika pertsonari eragiten dien benetako arazo gisa erakustea da helburu, ikusgarritasuna emateko eta inklusioa hobetzen jarraitu daitekeela erakusteko.



GARAPEN AKADEMIKOA




THE EGG

The Egg Adimen Artifizialaren eskola Oronak sustatu du, eta Skootik startupak sortu du. Eskolaren helburua da datu-analisten eta adimen artifizialeko espezialisten masa kritiko bat trebatzea gure lurraldean. Hala, gure ekonomiari balio teknologikoa emateko gai diren adituen kopurua biderkatu egingo da.

Orona Fundazioan dago The Egg adimen artifizialeko proiektuaren bi egoitza akademikoetako bat, eta ekonomikoki ere laguntzen dio proiektuari, gela horretarako ekipamenduak eta espazioak jarritz.

2022ko ikasturtean 18 ikasle izan dira.



DOPLAY

Doplay erakundearekin lankidetzan prestatu ditugu Orona Ideoko udako tailer teknologikoak, gazteek zientzia eta teknologia modu praktikoan ikas ditzaten beren sormena garatzearekin eta modu kolaboratiboan lan egitearekin batera.

Tailerrak 3 adin-taldetan banatu dira, eta zenbait gai landu dira, betiere arlo hauen inguruan: robotika, programazioa, bideo-jokoen diseinua, droneak, elektronika, diseinua eta animazioa eta bideo-edizioa.



GARAPEN KULTURALA



ERREMONTA

Nafarroako eta Gipuzkoako modalitate hau bi frontoitan bakarrik jokatzen da: Galarreta frontoian eta Uharteko Euskal Jai Berri frontoian.

Erremontea xistera erabiltzen duen euskal pilotaren modalitate ikusgarrienetako bat da. Teknika eta abiadura handia dira modalitatearen ezaugarri nagusiak.

Orona Fundazioak erremontearen alde egiten jarraitzen du, gure inguruneko ondare kulturala baita. Orona Ideoren instalazioetan aurkeztu da Erremonteko Binakako 52. Txapelketa.



ALBAOLA

Ontzi historikoak eraikitzea da Albaola Itsas Faktoriaren jarduera nagusia, aurreko mendeetan euskaldunek artisau-erako itsasketa-teknologiaren inguruan izan zuten ezagutzak eta nagusitasunak euskal gizartean izan zuten garrantzia berreskuratzeko eta horren balioa azpimarratzeko.

Orona Fundazioak Albaolari laguntzen dio San Juan itsasontziaren erreplika eraikitzen laguntzeko eta Faktoriaren jarduera sustatzeko.



GARAPEN KULTURALA



EUSKARA

Orona Fundazioak kulturarekin duen konpromisoaren barruan, eta euskarari lotutako ekimenak bultzatzeko eta ezagutarazteko xedearekin, Orona Fundazioak diruz lagundu du Kilometroak 2022 ikastolen jaialdia, zeina Ibarren egin baita, Uzturpe Ikastolaren lanari esker.

Elhuyar Fundazioaren 50. urteurreneko ospakizunean ere lagundu du Oronak. Euskara eta euskal kultura zientziarekin eta teknologiarekin uztartzea da fundazio horren helburua. Euskararen aldeko Euskaraldia 2022 ekitaldi sozialean ere parte hartu dugu Berria eta Alea hedabideen bidez.



LANDARBASO ABESBATZA

Landarbaso abesbatza musika-erreferentetzat hartzen da, eta bere kideen gaztetasuna, originaltasuna eta proiektuen berrikuntza eta kalitatea nabarmentzen dira. Euskal kulturarekin duen konpromisoa ere azpimarratu behar da, galdutako lanak berreskuratu eta moldaketa eta grabazio berriak eskaintzen baititu.

Orona Fundazioak euskal musika tradizionala eta kantua sustatzeko Landarbaso abesbatzaren sentikortze-proiektua bultzatu du ondare ez-materialarekiko konpromiso gisa.

Horretarako, bisitak eta saio pedagogikoak egin dira hainbat ikastetxetan: Bizarain, Hautzaro eta Orereta Ikastola, Koldo Mitxelena Herri-eskola eta Errenteria Musikal. Jarduera horietan 740 gaztek hartu dute parte 2022an.



BIODIBERTSITATEA




ARANZADI

Aranzadi Zientzia Elkartek zuzendu du ekimena Orona Fundazioaren babesarekin, eta helburua hiri-inguruneetan hegazti intsektujaleak kontserbatzea da.

Orona Ideoren inguruan habia-kutzak jartzeak kaskabeltza (*Parus major*), amilotx urdina (*Cyanistes caeruleus*) eta beste espezie batzuk egotea erraztuko du.

Horrelako ekimenak baliagarriak dira herritarrak hiriguneetan ere biodibertsitatea babestearen eta sustatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.



Kudeaketako beste alor batzuk

EKITALDIEN KUDEAKETA

Orona Ideo topagune bat da inguru hurbileneko eragileentzat. Horrez gain, hirugarren batzuen ekitaldiak ere egiten dira han.

2022an 209 ekitaldi egin dira. Haietatik, 43 hirugarren erakundeek ekitaldiak izan dira, eta 3.369 pertsonako fluxua sortu da.

209

bilera edo ekitaldi

3.369


bisitari

hirugarren erakundeek 43 ekitalditan

ORONAREN ELIKADURA-EREDUA

Slow Kafetegia Diametro 200 Hernaniko egoitza korporatiboan (Orona Ideo) dago. Elikagai SL enpresak Oronaren emakida bidez ireki zuenetik, eta Lastaolan ere eredu hori ezarrita, 2022an zehar 98.862 otordu eman dira instalazio horietan.

Otordu horiek guztiak emateko 2022an erositako lehengaien bolumen totalari dagokienez, % 57 hurbileko produktua da (200 km-ko diametro barruan du jatorria), eta/edo produktu ekologikoa eta bidezko merkataritzakoa.





Orona

Fundazioa Foundation

Jauregi bidea s/n
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Telf. +34 943335588

info@oronafundazioa.org
www.oronafundazioa.org

